# LAGUNTZA-GIDA
# EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO
# IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN GEHIGARRIZKO
# ORDAINSARI - OSAGARRIEN ESKAERA
# BETETZEKO

**Gasteiz, 2010eko azaroaren 10a**

## AURKIBIDEA


- Nola aurkeztu **eskaera** ........................................................................... 03 or.
- Nola egiaztatu EHUko irakasle eta ikertzaileen gehigarrizko ordainsari-osagarriak jasotzeko **baldintzak** ........................................................................... 04-05 or.
- Nola justifikatu B1, B2, B3, A1 eta A2 tarteak ebaluatzeko **merezimenduak**06-11 or.
- Nola bete eskaera aplikazio informatikoaren bidez ..................................... 12-27 or.

# NOLA AURKEZTU ESKAERA

***GOMENDIOA:*** Aurkeztu eskaerak aplikazio informatikoaren bidez.
Horiek ebatziko baitira aurrena.

GARRANTZITSUA: Ebaluazio Batzordeak ez ditu aintzat hartzen ESKAERAn adierazi ez diren merezimenduak, nahiz eta agiri bidez justifikatu. Horregatik, garrantzitsua da **bide telematikoz bidaltzeko eskaera** ongi betetzea. Eskaerak aurkezteko epea irekitzen den egunean prest egongo da www.uniqual.org webgunean.
Atal bakoitzean (irakaskuntza, ikerketa, kudeaketa eta euskara) adierazitako merezimenduen ziurtagiriak fitxategi batean jaso eta gehitu daitezke. Fitxategi bat baino gehiago izanez gero, PDF formatuan edo WINRAR edo WINZIPen bidez trinkotuta bidal daitezke. Beste aukera bat da tresna telematikoaren bidez betetzea eskaera, eta merezimenduen justifikazioa eskanerretik pasatu eta CD batean grabatzea, eta egiazkotasun-aitorpenarekin batera igortzea.

**Egiazkotasun Aitorpenak** deialdi bakoitzerako prestatutako ereduari jarraitu behar dio. Uniqualen www.uniqual.org webgunean egongo da. Egiazkotasun Aitorpena, behar bezala beteta eta jatorrizko sinadurarekin, **UPV/EHUko erregistroan** aurkeztu behar da.

**Eskaera aurrez aurre, paperean**, entregatu nahi izanez gero, EHAAko I. eta II. eranskinetan egongo da eskabide edo CV normalizatua. Ez dira onartuko, inola ere, deialdian adierazitakoa espresuki betetzen ez duten CV pertsonalak edo beste administrazio batzuetakoak (Osakidetza...). Kasu horretan, gomendatzen da dokumentazioa artxibadorerik gabe, koadernatu gabe, grapa edo klipik edo bestelakorik gabe aurkeztea.

Eskaera, egiazkotasun aitorpena eta merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko epea **bi hilabetekoa** da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

# NOLA EGIAZTATU TARTE BAKOITZERAKO EZARRITAKO BALDINTZAK

Ebaluatua izateko, deialdian jasotako **baldintzak bete** behar dira. Beraz, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu behar dira. Ezarritako baldintzak bete ezean, atzera botako da eskaera.

Eskaeran alegatutako merezimenduak behar bezala egiaztatzeko, haiei dagozkien agiri fede-emaileak aurkeztu behar dira. Hona jarraibideak:

**C1 tartea** lortzeko, UPV/EHUrekin ***hiru urteko lotura*** eduki izana egiaztatu behar da.

Baldintza hori agiri hauen bidez egiaztatu behar da:

- Zerbitzu-orriaren jatorrizko kopia.
- Bekadun-egiaztagiria, praktiketako lan-kontratua, edo, kontraturik izan ezean, UPV/EHUko Errektoreordetzaren ziurtagiria, bekaren hasiera-eguna eta amaiera-eguna justifikatzeko. Bekak aintzat hartuko dira antzinatasuna kalkulatzeko, betiere unibertsitatean jardutekoak badira.

***Oharra:** Bekak aintzat hartzeko, eskatzaileak kontratu bat izan behar du indarrean UPV/EHUrekin deialdian aipatzen den datan. Antzinatasuna kalkulatzeko, deialdian zehazten den eguna arte hartzen da kontuan, ez deialdia argitaratzen den eguna arte.

**C2 tartea** lortzeko, UPV/EHUrekin ***zazpi urteko*** lotura eduki izana egiaztatu behar da.

Baldintza hori agiri hauen bidez egiaztatu behar da:

- Zerbitzu-orriaren jatorrizko kopia.
- Bekadun-egiaztagiria, praktiketako lan-kontratua, edo, kontraturik izan ezean, UPV/EHUko Errektoreordetzaren ziurtagiria, bekaren hasiera-eguna eta amaiera-eguna justifikatzeko. Bekak aintzat hartuko dira antzinatasuna kalkulatzeko, betiere unibertsitatean jardutekoak badira.

*** Oharra:** Bekak aintzat hartzeko, eskatzaileak kontratu bat izan behar du indarrean UPV/EHUrekin deialdian aipatzen den datan. Antzinatasuna kalkulatzeko, deialdian zehazten den eguna arte hartzen da kontuan, ez deialdia argitaratzen den eguna arte.

**B1 tartea** lortzeko, UPV/EHUn ***hiru urteko*** antzinatasuna izatea eta UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean beste bi urteko antzinatasuna izatea egiaztatu behar da.

UPV/EHUn hiru edo bost urteko antzinatasuna izatea egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Zerbitzu-orriaren jatorrizko kopia.
- Bekadun-egiaztagiria, praktiketako lan-kontratua, edo, kontraturik izan ezean, UPV/EHUko Errektoreordetzaren ziurtagiria, bekaren hasiera-eguna eta amaiera-eguna justifikatzeko.

Beste unibertsitate batean bi urte bitarteko antzinatasuna izatea egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Kontratua, hasiera- eta amaiera-datekin, edo, kontraturik izan ezean, lan-bizitzaren agiri eguneratua.

**B2 eta B3 tarteak** lortzeko, UPV/EHUn ***zazpi urteko antzinatasuna*** izatea eta UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean beste hiru urteko antzinatasuna izatea, eta doktore izatea egiaztatu behar da.

UPV/EHUn zazpi urteko antzinatasuna edo hamar urte bitarteko antzinatasuna izatea egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Zerbitzu-orriaren jatorrizko kopia.
- Bekadun-egiaztagiria, praktiketako lan-kontratua, edo kontraturik izan ezean, UPV/EHUko Errektoreordetzaren ziurtagiria, bekaren hasiera-eguna eta amaiera-eguna justifikatzeko.

Beste unibertsitate batean hiru urte arteko antzinatasuna izatea egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Kontratua, hasiera- eta amaiera-datekin, edo, kontraturik izan ezean, lan-bizitzaren agiri eguneratua.

Doktore izatea agiri hauen bidez egiaztatu behar da:

- Doktore tituluaren kopia edo doktoretza-tesia defendatu den unibertsitatearen ziurtagiria, betiere, defendatze-data deialdian zehaztutakoa baino lehenagokoa bada.

**A1 eta A2 tarteak** lortzeko, gutxienez ere 10 urteko antzinatasuna egiaztatu eta doktore titulua izan beha da.

UPV/EHUn zazpi urteko antzinatasuna izatea egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Zerbitzu-orriaren jatorrizko kopia.
- Bekadun-egiaztagiria, praktikaldiko lan-kontratua, edo kontraturik izan ezean, UPV/EHUko Errektoreordetzaren ziurtagiria, bekaren hasiera-eguna eta amaiera-eguna justifikatzeko.

Beste unibertsitate batean hiru urte arteko antzinatasuna izatea egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Kontratua/k, hasiera- eta amaiera-datekin, edo, kontraturik izan ezean, lan-bizitzaren agiri eguneratua.

Doktore izatearen baldintza egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu beha dira:

- Doktore tituluaren kopia edo doktoretza-tesia defendatu den unibertsitatearen ziurtagiria, betiere defendatze-data deialdian zehaztutakoa baino lehenagokoa bada.

TARTE BAKOITZERAKO EZARRITAKO BALDINTZAK BETEZ GERO, PUNTU HAUEK ESLEITUKO ZAIZKIO ESKATZAILEARI:

B1 Tarterako: 25 puntu
B2 Tarterako: 50 puntu
**B3 tarterako: 75 puntu**
A1 eta A2 tarterako: 90 puntu

# B1, B2, B3, A1 eta A2 TARTEAK EBALUATZEKO MEREZIMENDUEN JUSTIFIKAZIOA

Mezu elektronikoak ez dira onartuko egiaztagiritzat. Jarduera egin den erakundeak emandako egiaztagiriak aurkeztu behar dira.

## 1. IRAKASKUNTZA-MEREZIMENDUAK

### 1.1. Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta berritzeko jarduerak.

#### 1.1.1. Nazioarteko truke-programetan parte hartzea irakasle/ikasle gisa (ERASMUS edo beste batzuk). Koordinatzaile gisa parte hartzeari balio bikoitza emango zaio.

Merezimendu hori egiaztatzeko, programa horretan parte hartu izanaren edo koordinatzaile gisa aritu izanaren agiria aurkeztu behar da, erakunde parte-hartzaileak eta parte-hartzearen epea (hasiera- eta amaiera-datak) adieraziz.

#### 1.1.2. Ikasketak amaitu eta gero atzerriko ikastegietan egindako egonaldiak.

Merezimendu hori egiaztatzeko, jarduera egin den unibertsitate edo zentroak emandako egiaztagiriaren jatorrizko kopia aurkeztu behar da, jarduera-mota, zentroa, hasiera-data eta amaiera-data adieraziz.

#### 1.1.3. UPV/EHUko kalitate-programetan parte hartzea (gradu eta graduondoak).

Merezimendu hori egiaztatzeko, kalitate-prozesuetan, kalitatearen alorreko plan estrategikoetan, katedra, ikastaro eta ekintzetan parte hartu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

#### 1.1.4. Berrikuntza pedagogikorako gaitasun egiaztatua izatea.

Merezimendu hori egiaztatzeko, AICRE, SICRE, IBP programetan edo irakasle-prestakuntzako beste ikastaro edo ekintzetan parte hartu izanaren agiriak aurkeztu behar dira.

#### 1.1.5. UPV/EHUko campus birtualean parte hartzea.

Merezimendu hori egiaztatzeko, ikasgai birtualetan eta campus birtualeko laguntza-ikastaroetan irakasle gisa aritu izanaren egiaztagiriak aurkeztu behar dira.

**1.1.6. UPV/EHUn irakasteko IKTak erabiltzea eta sustatzea (webgune eguneratuak eta abar).**

Webguneen eta IBSNa duten multimedia materialen kasuan, ez da egiaztagirik aurkeztu behar, betiere eskaera betetzean webgunearen helbidea edo ISBNa adierazten bada. Kongresuen, irakaskuntza-berrikuntzako jardunaldien, ikastaroen (Moodle, eKasi...) eta abarren kasuan, dagokion egiaztagiria aurkeztu behar da.

**1.1.7. Berrikuntza eta kalitateko unibertsitate-irakaskuntza. Departamentuko zuzendariaren txostena, aldekoa eta argudiatua, irizpide hauen arabera.**

Merezimendu hori egiaztatzeko, ikasleen inkestak, departamentuaren txostenak (tutoretza betetzeak), irakasle-gidaritza txostena eta norberaren txostena aurkeztu behar ditu.

## 1.2. Prestakuntza espezializatuko jarduerak.

**1.2.1. Tesiak (UPV/EHUn edo hortik at), tesinak eta ikerketa-lanak zuzentzea.**

Merezimendu hori egiaztatzeko, eskatzaileak tesiak, tesinak (CEA) edo ikerketa-lanak zuzendu izanaren ziurtagiria aurkeztu behar du, UPV/EHUk emana.

**1.2.2. Europan egindako tesiak zuzentzea. Doktoretza-sari berezia jaso duten tesiak zuzentzea.**

Merezimendu hori egiaztatzeko, egindako tesiaren egiaztagiria edo doktoretza-sari berezia aurkeztu beharko da.

**1.2.3. Karrera amaierako proiektuak zuzentzea.**

Merezimendu hori egiaztatzeko, karrera amaierako proiektu bat zuzendu izanaren agiria aurkeztu behar du eskatzaileak.

**1.2.4. Ikasleen prestakuntza akademikorako jarduerak antolatzea (enpresetarako bisitak, landa-praktikak eta abar).**

Merezimendu hori egiaztatzeko, egindako jarduera-motari (ikasgaien koordinazio-lana, kasu) buruzko ziurtagiria aurkeztu behar da.

**1.2.5.- UPV/EHUn egindako ikerketa-lanen dibulgaziozko jardueretan parte hartzea (esate baterako, unibertsitate-hedapeneko ikastaroak edo unibertsitateak egiten duen lana gizarteratzeko beste jarduera batzuk).**
Merezimendu hori egiaztatzeko, egindako ikastaroetan parte hartu edo ikastaroak (udako ikastaroak, unibertsitate hedapeneko ikastaroak eta abar) koordinatu izanaren agiria aurkeztu behar da.

## 1.3. Irakaskuntza-jarduera eta irakaskuntza-materialak prestatzea.

### 1.3.1. Ospe handiko beste unibertsitate batzuetan ikastaroak, mintegiak eta udako ikastaroak eman izana.

Merezimendu hori egiaztatzeko, ikastaroetan parte hartu edo ikastaroak koordinatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira, ikastaroa edo mintegia nazio-mailakoa edo nazioartekoa izan den adieraziz.

### 1.3.2. Doktoretza-programak koordinatzea eta programa horietan parte hartzea.

Merezimendu hori egiaztatzeko, doktoretza- eta master-proiektuetan parte hartu edo koordinatu izanaren ziurtagiria.

### 1.3.3. Ofiziala ez den hizkuntza batean edo gehiagotan irakastea.

Merezimendu hori egiaztatzeko, hizkuntza ez-ofizial batean (adibidez, atzerriko unibertsitate batean) irakatsi aritu izanaren ziurtagiria aurkeztu behar da.

### 1.3.4. Irakaskuntza-materiala egitea (ISBNdun liburuak eta liburuetako kapituluak, ikus-entzunezko materialak barne) batik bat gabeziak dituzten jakintza-alorretarako.

Egiaztatzeko agiririk ez da aurkeztu behar, baina eskaeran adierazi behar dira egile edo egileak, izenburua, argitaletxea, lekua, urtea, liburuaren orrialde-kopurua eta ISBNa. ISBNrik ez duen irakaskuntza-materialik ez du aintzat hartuko Ebaluazio Batzordeak.

***OHARRA:*** Ez dira aintzat hartuko ISBNrik ez duten argitalpenak edo prentsako argitalpenak.

### 1.3.5. EESS berriaren diseinuarekin zerikusia duten materialak egitea eta argitaratzea.
Egiaztatzeko agiririk ez da aurkeztu behar, baina eskaeran adierazi behar dira egile edo egileak, izenburua, argitaletxea, lekua, urtea, liburuaren orrialde-kopurua eta ISBNa. ISBNrik ez duen irakaskuntza-materialik ez du aintzat hartuko Ebaluazio Batzordeak.

***OHARRA:*** Ez dira aintzat hartuko ISBNrik ez duten argitalpenak edo prentsako argitalpenak.

#### 1.3.6.- Profil elebiduneko plaza batera borondatez aldatzea.

Merezimendu hori egiaztatzeko, UPV/EHUk emandako ziurtagiria aurkeztu behar da.

## 1.4. Beste merezimendu batzuk

### 1.4.1 Beste merezimendu batzuk

Merezimendu hori egiaztatzeko, eskatzaileak graduondoko beste ikastaro batzuetan, doktoretzako tesien epaimahaietan eta abarretan parte hartu izanaren agiriak aurkeztu behar dira.

## 2. Ikerkuntza

## 2.1. Produkzio zientifikoa

### 2.1.1. Argitalpenak (ISBNdunak)

Egiaztatzeko agiririk ez da aurkeztu behar, baina eskaeran adierazi behar dira egile edo egileak, izenburua, argitaletxea, lekua, urtea, liburuaren orrialde-kopurua eta ISBNa. ISBNrik ez duen irakaskuntza-materialik ez du aintzat hartuko Ebaluazio Batzordeak.

***OHARRA:*** Ez dira aintzat hartuko ISBNrik ez duten argitalpenak edo prentsako argitalpenak.

### 2.1.2. Zientzia eta ikerketarako azpiegiturak sortzea eta erabiltzea sustatzea bai UPV/EHUn zein EAEn.

Merezimendu hori egiaztatzeko, patentearen jabetza-agiria edo bestelako industria-jabetzaren agiriren bat aurkeztu behar da.

### 2.1.3. Kongresuetan parte hartzea. Gonbidapenezko ponentziak. Komunikazioak. Batzorde Zientifiko edo antolatzaileko kidea. Erakusketetako komisariotzak.

Merezimendu hori egiaztatzeko, Kongresuetan, ponentzietan, komunikazioetan... parte hartzearen agiriak aurkeztu behar dira. Eta nazio mailakoak edo nazioartekoak izan diren adierazi behar da.

## 2.2. Enpresetan, patenteetan eta antzekoetan parte hartzea.

### 2.2.1. Ustiatu diren edo erosi diren patenteen erregistroa.

Merezimendu hori egiaztatzeko, patenteen ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

### 2.2.2. Txostenak egitea (UPV/EHUko erakunde eskumendunen bitartez bideratuak) erakunde publikoentzat, instituzioentzat eta garrantzi egiaztatua duten enpresentzat; txostenen gutxieneko balioa: 12.000 € (BEZa barne).

Merezimendu hori egiaztatzeko, txostenak, azterlanak, irizpenak edo azterketa teknikoak egin izanaren ziurtagiria aurkeztu behar da, eta orduak eta diru-zenbatekoa adierazi.

## 2.3. Ikerketa-proiektuetan parte hartzea eta/edo zuzendari izatea.

### 2.3.1. Ikerketa-talde sendotuetan, goi-errendimenduko taldeetan edo UPV/EHUko taldeetan zuzendari edo partaide izatea.

Merezimendu hori egiaztatzeko, halako taldeetan parte hartu izanaren ziurtagiria aurkeztu behar da.

### 2.3.2. Lehiaketa-deialdietako ikerketa-proiektuetan partaide aktibo edo zuzendari izatea; iraupena: urtebete edo denboraldi baliokidea, urte askotako proiektuetan. ZTBPri jarraiki Euskal Autonomia Erkidegoan interes berezia duten ikerketak aintzat hartuko dira. Hasitako eta amaitutako urtea eta lankidetza-maila (zuzendaria, taldeko kidea, bekaduna...) adierazi behar dira.

Merezimendu hori egiaztatzeko, proiektu horietan izandako parte-hartzearen ziurtagiria aurkeztu behar da eta programaren maila adierazi, hau da, autonomia-erkidego, nazio, nazioarte edo Europa mailakoa den.

### 2.3.3. UPV/EHUri funtsak ekipamendu, prestakuntza-beka edo laguntzaile teknikoentzako kontratu eran itzultzen dizkioten eta euskal gizartean proiekzioa duten enpresekin ikerkuntza-proiektuetan parte-hartze aktiboa izatea Unibertsitatearen ohiko sistemen bitartez (OTRI, Euskoiker, hitzarmen espezifikoak..); proiektuen gutxieneko zenbatekoa: 20.000 € (BEZa barne). Hasitako eta amaitutako urtea eta lankidetza-maila (zuzendaria, taldeko kidea, bekaduna...) adierazi behar dira.

Merezimendu hori egiaztatzeko, enpresekin edo erakunde publiko edo pribatuekin egindako ikerketa-kontratuen kopiak aurkeztu behar dira eta parte hartzea zehaztu behar da.

## 2.4.- Beste merezimendu batzuk

### 2.4.1.- Beste merezimendu batzuk

Ikerketa-sariak, -bekak eta abar.

Zer sari jaso den, zer erakundek ematen duen eta noiz jaso den zehaztu behar da eskaeran.

- Merezimendua egiaztatzeko, saria jaso izanaren agiriaren kopia bat aurkeztu behar da.

## 3. Kudeaketa

### 3.1. Kargu akademikoetan aritzea.

Merezimendu hori egiaztatzeko, izandako karguaren ziurtagiria aurkeztu behar da.

### 3.2.- Beste merezimendu batzuk

Merezimendu hori egiaztatzeko, dagokion merezimenduaren ziurtagiria aurkeztu behar da.

## 4. Euskara

Unibertsitate-jardueraren erdia (irakaskuntza eta ikerkuntza) gutxienez euskaraz egiten dela justifikatzeko, dagokion egiaztagiria aurkeztu behar da.

**1. urratsa:** Erregistra zaitez






**2. urratsa:** Eskaera betetzen hasteko, sakatu “Bete”






**3. urratsa:** NANa eskanerretik pasatu eta fitxategi batean gorde eta gero, edo fitxategi batean baino gehiagotan baduzu, karpeta batean konprimitu behar duzu, eta gero, sakatu "Examinar" > "Abrir" (gordeta duzun tokitik) eta jarraitu datu pertsonalen atala betetzen.




Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/new?report_id=1
Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda
Osagarriak 2010
K.P.*:
Udalerria*:
Probintzia*:
Telefono-luzapena*:
Jaiotze eguna*: 1930
Jaiotze Tokia (Herria eta Probintzia)*:
Herrialdea*:
Sexua*: Emakumezkoa
Posta elektronikoa*:
Gaur egungo irakasleen kidegoa*:
Saila*:
Ikastegia*:
Ezagutza-arloa*: Medikuntza eta Osasun Zientziak
Gaur egungo arduraldia*:
Listo
Internet
100%
Inicio
12:30


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/new?report_id=1
Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda
Osagarriak 2010
Gaur egungo arduraldia*:
UPV-EHUn emandako irakaskuntza eta ikerketa zerbitzuak
Kontutan hartuko dira antzinatasuna kalkulatzeko
Zehaztu:
Kategoria edo Kidegoaz
Arduraldia
Hasiera-data
Bukaera-data
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
Justifikazioa: Examinar... Bat baino gehiago izatekotan, fitxategi bakar batean konprimitu behar dituzu
Beste unibertsitateetan emandako irakaskuntza eta ikerketa zerbitzuak
Kontutan hartuko dira antzinatasuna kalkulatzeko
Zehaztu:
Unibertsitatea
Listo
Internet
100%
Inicio
12:30

**4. urratsa:** Aurrena justifikazioa eskanerretik pasatu eta fitxategi batean gordeta izatea gomendatzen da. Eskanerretik pasatu eta fitxategi batean baino gehiagotan baduzu, karpeta batean konprimitu behar duzu, eta ondoren, sakatu “Examinar” > “Abrir” (gordeta duzun tokitik) eta jarraitu datuak betetzen.






**5. urratsa:** Gorde (garrantzitsua da aldaketa bat egin eta gero beti "gorde" sakatzea)




**Oharrak:** Fitxategi erantsi bat kendu edo daturen bat aldatu nahi duzun bakoitzean, "Aldatu" eta "Gorde"




Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4/edit?page=1
Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda
Osagarriak 2010
UNIQUAL Osagarriak 2010
Castellano Euskera
Curriculoa aldatu
Betebeharreko eremuak
Datu pertsonalak
Izena*: IZENA
Lehen Deitura*: LEHEN DEITURA
Bigarren Deitura*: BIGARREN DEITURA
NAN*: NAN 12345678-W
NAN eskaneatuta: N.A.N..pdf Ezabatu fitxategi hau
Jakinarazteko helbidea*: KINARAZTKO HELBIDEA Zkia, solairua eta letrarekin
K.P.*: K.P.
Udalerria*: UDALERRIA
Listo
Internet
100%
Inicio
Osagarriak 2010 - Wi...
Laguntza-Gida - Micro...
12:46

Gorde


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4/edit?page=1
Justifikazioa: Antzinatasun Justifikazioa.rar Ezabatu fitxategi hau Bat baino gehiago izatekotan, fitxategi bakar batean konprimitu behar dituzu
Zein denboraldirako eskatzen den ebaluazioa
Zehaztu Hasiera-data. Bukaera data 2009/12/31 da.
Beste agentzia edota erakunde batzuek ebaluatutako merezimenduak*
Aintzatetsitako bosturtekoak*: 0
Aintzatetsitako seiurtekoak*: 0
Gizarte Kontseiluak aintzatetsitako zatiak*: 0
Beste agentzia batzuek aintzatetsitako zatiak*: 0
Eskatutako zatiak*: C1 C2 B1 B2 B3 A1 A2 Marka itzazu ebaluatuta izan nahi dituzun zati guztiak. Bakarrik ebaluatuko dira eskatutako zatiak
Gorde
Betebeharreko eremuak
Uniqual: San Prudencio 8, 01005 Vitoria-Gasteiz
Telf: 945.12.33.56, Fax: 945.26.06.27, e-mail: osagarriak@uniqual.org


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4?page=1
UNIQUAL 2010
Osagarriak
Castellano Euskera
Hasiera
Pasahitza aldatu Irten
Figura gorde egin da.
Osagarriak
Inprimatu
Datu pertsonalak Irakaskuntza Ikerketa Kudeaketa Euskara
Aldatu
Datu pertsonalak
Izena*: IZENA
Lehen Deitura*: LEHEN DEITURA
Bigarren Deitura*: BIGARREN DEITURA
NAN*: NAN
NAN eskaneatuta: N.A.N..pdf

**B eta/edo A** tarteak ebaluatzea eskatu baduzu, Irakaskuntza, Ikerketa, Kudeaketa eta Euskara atalak bete behar dituzu, hala badagokio. Atal bakoitza betetzeko, lehenbizi "Modificar" sakatu behar duzu, eta gero atal bakoitzari dagozkion merezimenduak sartu.

**6. urratsa:**




Merezimendu bakoitzak gelaxka batean joan behar du; hortaz, merezimendu bat gehitu nahi duzun bakoitzean, aurrena "Añadir" sakatu behar duzu.


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4/edit?page=2
Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda
Osagarriak 2010
UNIQUAL 2010
Osagarriak
Castellano Euskera
Curriculoa aldatu
Betebeharreko eremuak
1. Irakaskuntza
1.1. Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta berrikuntza bultzatzeko jarduerak.
1.1.1. Nazioarteko irakasleen/ikasleen truke-programetan parte hartzea (ERASMUS edo beste batzuk). Koordinatzaile gisa parte hartzea beste maila batean parte hartzearen bikoitza balioetsiko da.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.1.2. Ikasketak amaitzean egonaldiak atzerriko zentroetan.
Listo
Internet
100%
Inicio
12:52


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4/edit?page=2
1.1.2. Ikasketak amaitzean egonaldiak atzerriko zentroetan.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.1.3. UPV/EHUko kalitate-programetan parte hartzea (gradukoak eta graduondokoak)
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.1.4. Berrikuntza pedagogikoan frogatutako gaitasuna.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.1.5. UPV/EHUko campus birtualean parte hartzea.
Internet
100%
Inicio
12:53


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4/edit?page=2
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.1.6. UPV/EHUko irakaskuntzan IKTak erabiltzea eta horien erabilera bultzatzea (eguneratutako web-orria, etab.)
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.1.7. Berrikuntza eta unibertsitateko kalitatezko irakaskuntza ematea.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.2. Berariazko prestakuntza-jarduerak.
1.2.1. Tesiak (EHUn edo kanpoan), tesinak eta ikerketa-lanak zuzentzea.
Ezabatu


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4/edit?page=2
1.2.2. Europako tesiak zuzentzea. Doktoregoko aparteko saria lortu duten tesiak zuzentzea.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.2.3. Karrera-amaierako proiektuak zuzentzea.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.2.4. Ikasleen prestakuntza akademikorako jarduerak prestatzea (enpresetara bisitaldiak, landa-praktikak, etab.).
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.2.5. UPV/EHUn egindako ikerketa ezagutarazteko eta zabaltzeko jardueretan parte hartzea, unibertsitate-hedapenerako ikastaroen bidez edo Unibertsitatearen lana gizarteari jakinarazteko bideratutako bestelako jardueren bidez.


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4/edit?page=2
Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda
Osagarriak 2010
1.2.5. UPV/EHUn egindako ikerketa ezagutarazteko eta zabaltzeko jarduereetan parte hartzea, unibertsitate-hedapenerako ikastaroen bidez edo Unibertsitatearen lana gizarteari jakinaraztera bideratutako bestelako jardueren bidez.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.3. Irakaskuntza-jarduera eta irakaskuntza-materialak sortzea.
1.3.1. Izen oneko beste unibertsitate batzuetan ikastaroak, mintegiak eta udako ikastaroak ematea.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.3.2. Doktorego-programak koordinatu eta bertan parte-hartzea.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
Internet
100%
Inicio
Osagarriak 2010 - Wi...
Laguntza-Gida - Micro...
12:54


Osagarriak 2010 - Windows Internet Explorer
http://82.103.138.107:8100/curricula/4/edit?page=2
Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda
Osagarriak 2010
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.3.3. Ofizialak ez diren hizkuntza batean baino gehiagotan eskolak ematea.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.3.4. Irakaskuntza-materialak sortzea (ISBNdunak), batez ere jakintza-arlo defizitarioetarako, ikus-entzunezko materialak eta liburu-kapituluak barne.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
1.3.5. GHEE berriaren diseinuarekin zerikusia duten materialak sortzea eta argitaratzea.
Ezabatu
Gehitu (merezimendu bat gelaxka bakoitzean)
Internet
100%
Inicio
Osagarriak 2010 - Wi...
Laguntza-Gida - Micro...
12:55

Atal bakoitzaren amaieran, “egiaztagirien kopia” (“Copia de la documentación acreditativa”) agertuko zaizu. Atal bakoitzean sartu dituzun merezimenduak justifikatu behar dituzu. Egiaztagiriak eskanerretik pasatu eta fitxategi batean gorde eta gero, edo fitxategi batean baino gehiagotan badituzu, karpeta batean konprimitu eta gero, sakatu Examinar > Abrir (gordeta duzu tokitik) eta Gorde.



Gorde ondoren, hurrengo atalera joan zaitezke, eta jarraibide berberen arabera bete. Eskaera betetzen amaitu eta datu guztiak zuzen daudela egiaztatu eta gero, sakatu <u>Aldatu</u> eta <u>Irten</u>, eta ondoren, sartu berriro aplikaziora.






**Azkenik,** sakatu Cerrar eta Enviar**.**




Aplikazioa itxi eta gero ez dizu eskaeran aldaketarik egiten utziko.




Eskatzailearentzako frogagiri gisa, sakatu Imprimir registro, eta, eskaera ikusi nahi izanez gero, sakatu Complementos

